

Ikasturte bukaeran ere Hezkuntza Sailarekin gorabeherak



Atzo, ekainak 22, EAEko Hezkuntza Saileko Zerbitzuetako Mahai Parekidea izan genuen Lakuan. Hizpide izan genituen: kontratuen gutxiengo jarduna, iraileko beharrak direla eta birkolokatuko dituzten langileak mugitzeko irizpideak (4 lanpostu), garbiketako ratio jaitsiera, soldata taulen hutsen zuzenketa, Sare eta Sistema informatikoko teknikarien 2026-2027ko egoera eta sukalde berriak.

Soldata taulen hutsen zuzenketa

Lan Hitzarmenean jasotako soldata tauletako akatsak zuzentzeko akordioa erdietsi dugu aho batez. Horrela, langileek 2025eko iraileko atzeraeraginez jasoko dituzte zuzenketaren ondorioz jaso beharreko kopurua.

Gogoratu nahi dugu ere, maiatzeko nominan garbiketako langileei ez zitzaizela osagarriak ordaindu. Hezkuntza Sailak konfirmatu digu atzerapen hauek, garbiketako osagarria barne, ekaineko nominarekin batera ordainduko dutela.

Hala eta guztiz ere, LABetik salatzen dugu jardun erdia baino gutxiagoko ekoizpenagatiko kontratuak ahalbideratzeko akordioa adosteko saiakera egin duela Hezkuntza Sailak.

Dakizuen bezala, greba eta borroka zikloari bukaera emateko 2025eko maiatzean sinatu genuen

Lan Hitzarmenaren %50eko jarduna baino gutxiagoko ekoizpenagatiko kontratuak desagerrarazi genituen, kontratu hauek prekarietatean sakontzen zutelako.

Garbiketako kasuan erdira iristen ez diren metro kopurua esleitzeko aitzakiarekin jardun hereneko kontratuak egiteko aukera berriz ere jarri du mahai gainean administrazioak.

LABetik argi utzi dugu ez dugula horrelakorik onartuko, lan baldintzak nabarmen okertuko liratekeelako. Uste dugu, arazoari irtenbidea emateko hainbat bide arakatu daitezkeela eta proposamen bat helaraziko diogu Hezkuntza Sailari.

Iraileko beharrak eta LPZn egokitzapenak

Administrazioak jakinarazi digunaren arabera EAEko 4 zentroetan irailerako beharrak nabarmen jaitsi dira. Hori dela eta 3 sukaldari langile lekuz mugituko dituzte (4. langilea erretiratu da).

LABetik zentro hauen egoera aztertuko dugu ondorengo egunetan eta Lanpostuen Zerrendako lanpostu guztiak mantentzen direla ziurtatu. Aipatutako hiru langile hauek birkokatzeko erabiliko diren irizpideak honakoak izango dira:

Lehenengo, adierazitako zentro horietako sukaldariei boluntarioki birkokatuak izateko aukera emango zaie eta ondoren honelako irizpide hauek aplikatuko dira: enpresako antzinasuna eta desenpaterako abizen eta izenen orden alfabetikoa R letratik hasita (Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko urriaren 23ko ebazpena).

Honek LPZren aldaketa suposatzen du eta adi ibliko gara 4 lanpostu hauek behar bezala jasotzen direla ziurtatzeko.

Garbiketako metro jaitsiera

LABetik hainbatetan salatu bezala, Lan Hitzarmenean jasotako garbiketako metro jaitsiera ez da zentro gehienetan betetzen ari. Hezkuntza Sailak ikasturte luze honetan ez dituela bere etxeko lanak behar bezala egin behin eta berriz mahaigaineratu dugu eta orain, zentroetako zuzendaritzetan jartzen du ardura.

IKT langileen 2026-2027 ikasturteko aurreikuspena

Sare eta sistema informatikoen teknikarien 2026-2027 ikasturterako aurreikuspena aurkeztu digute. Horrela gaur dauden 15 lanpostuei (egun, ekoizpen kontratuekin beteak) beste 15 lanpostu gehituko zaizkie.

LABetik irakasleen Lan Hitzarmen berrian, plantilak esleitzeko irizpideetan jasotzen denaren arabera kalkulatu dituztela arretaz aztertuko dugu. Beraz, egin diguten aurreikuspenaren arabera, kategoria honetako irailaren 1etik aurrera 30 lanpostu txertatuko dira Lanpostuen Zerrendan.

Dakizuenez hitzarmenarekin batera kategoria berri hau sortu zen eta egun dauden IKTko 15 langileen ekoizpen kontratuak dituzte irailaren 1etik. Gauzak horrela eta salbuespenez 2025-2026 ikasturtean 12 hilabetera luzatzeko akordia erdietsi dugu Hezkuntza Sailak eta LAB eta UGT sindikatuok.

Horrez gain, aipatutako langileek lehentasuna izango dute egun betetzen duten lanpostuan mantentzeko (bakante bihurtzen denean). Hala eta guztiz ere aukera emango zaie lehentasun honi uko egiteko, zigorrik gabe eta 2026-2027ko ikasturte hasierako esleipenetan parte hartzeko aukera izango dute lehentasunez, zerrenda hauek barematu gabe daudelako.

Sukalde Berriak

Sukalde berrien kudeaketari dagokionez, Hezkuntza Sailaren gardentasun eza salatzen dugu. Behin eta berriz eskatu ditugu honen ingurukoko argibide eta datu zehatzak eta administrazioak ez du erantzun garbirik eman momentuz. Gaurko mahaian beste behin ere informazioa helaraztea eskatu dugu.

LABetik lanean jarraitzen dugu EAEko Hezkuntza Saileko zerbitzuetako langileen lan baldintzetan aurrera urratsak ematen eta Lan Hitzarmena gara dadin.

Nuevos desencuentros con el Departamento de Educación en este final de curso



Ayer, día 22, se celebró en Lakua la Mesa Paritaria del personal Servicios del Departamento de Educación de la CAV. Sea bordaron los siguientes temas: la jornada mínima de los contratos de producción, los criterios para la reubicación del personal que será desplazado debido a las previsiones para septiembre [4 puestos de trabajo], la reducción de ratios en limpieza, la corrección de errores en las tablas salariales, la situación del personal técnico de Redes y Sistemas Informáticos para el curso 2026-2027 y las nuevas cocinas.

Corrección de errores en las tablas salariales

Hemos alcanzado por unanimidad un acuerdo para corregir los errores existentes en las tablas salariales recogidas en el Convenio Colectivo. De este modo, el personal trabajador percibirá con efectos retroactivos desde septiembre de 2025 las cantidades correspondientes derivadas de dicha corrección.

Queremos recordar también que en la nómina de mayo no se abonó al personal de limpieza el complemento correspondiente. El Departamento de Educación nos ha confirmado que todos estos atrasos, incluido el complemento de limpieza, se abonarán junto con la nómina de junio.

No obstante, desde LAB denunciarnos que el Departamento de Educación ha intentado alcanzar un acuerdo que permita nuevamente los contratos por circunstancias de la producción con jornadas inferiores al 50 %.

Como sabéis, en el Convenio Colectivo que firmamos en mayo de 2025 para poner fin al ciclo de huelgas y movilizaciones eliminamos este tipo de contratos por debajo del 50 % de jornada, ya que profundizaban en la precariedad laboral.

En el caso de la limpieza, con la excusa de asignar superficies que no alcanzan el volumen necesario para una media jornada, la Administración ha vuelto a plantear la posibilidad de realizar contratos de un tercio de jornada.

Desde LAB hemos dejado claro que no vamos a aceptar una medida de este tipo, ya que supondría un deterioro significativo de las condiciones laborales. Consideramos que existen diferentes vías para dar solución a este problema y trasladaremos una propuesta al Departamento de Educación.

Necesidades de septiembre y adaptaciones en la RPT

Según la información facilitada por la Administración, en cuatro centros de la CAV las necesidades previstas para septiembre han disminuido notablemente. Como consecuencia, se procederá al traslado de tres personas trabajadoras de cocina (la cuarta persona trabajadora se ha jubilado).

Desde LAB analizaremos la situación de estos centros en los próximos días para garantizar que se mantengan todos los puestos recogidos en la Relación de Puestos de Trabajo (RPT).

Los criterios que se utilizarán para la reubicación de estas tres personas trabajadoras serán los siguientes:

En primer lugar, se ofrecerá al personal de cocina de los centros afectados la posibilidad de ser reubicado de manera voluntaria. Posteriormente, se aplicarán los siguientes criterios: antigüedad en la empresa y, en caso de empate, orden alfabético de apellidos y nombre a partir de la letra R (Resolución de 23 de octubre de 2024 de la Directora de Gestión de Personal).

Esta situación supone una modificación de la RPT y permaneceremos vigilantes para garantizar que estos cuatro puestos de trabajo queden correctamente reflejados.

Reducción de metros en limpieza

Tal y como hemos denunciado en numerosas ocasiones desde LAB, la reducción de metros de limpieza recogida en el Convenio Colectivo no se está aplicando en la mayoría de los centros.

Hemos señalado reiteradamente que el Departamento de Educación no ha realizado adecuadamente sus tareas durante este largo curso y ahora pretende trasladar la responsabilidad a las direcciones de los centros.

Previsión para el curso 2026-2027 del personal TIC

Se nos ha presentado la previsión para el curso 2026-2027 del personal técnico de Redes y Sistemas Informáticos. Así, a los 15 puestos existentes actualmente (cubiertos en la actualidad mediante contratos por circunstancias de la producción) se añadirán otros 15 puestos más.

Desde LAB analizaremos detenidamente si estos cálculos se han realizado conforme a los criterios de asignación de plantillas recogidos en el nuevo Convenio Colectivo del personal docente.

Por tanto, según la previsión que se nos ha trasladado, a partir del 1 de septiembre se incorporarán 30 puestos de trabajo de esta categoría a la Relación de Puestos de Trabajo.

Como sabéis, esta nueva categoría profesional fue creada junto con la firma del convenio y las 15 personas trabajadoras TIC actualmente en activo cuentan con contratos por circunstancias de la producción desde el 1 de septiembre. En este contexto, y de forma excepcional, para el curso 2025-2026 hemos alcanzado un acuerdo entre el Departamento de Educación y los sindicatos LAB y UGT para ampliar estos contratos a 12 meses.

Además, estas personas trabajadoras tendrán prioridad para permanecer en el puesto que actualmente desempeñan cuando este pase a ser una vacante. No obstante, podrán renunciar a dicha prioridad sin penalización alguna y participar con carácter preferente en las adjudicaciones de inicio del curso 2026-2027, dado que estas listas todavía no han sido baremadas.

Nuevas cocinas

En relación con la gestión de las nuevas cocinas, denunciamos la falta de transparencia del Departamento de Educación. Hemos solicitado en repetidas ocasiones aclaraciones e información detallada al respecto, pero hasta el momento la Administración no ha ofrecido una respuesta clara.

En la reunión de hoy hemos vuelto a exigir que se nos facilite dicha información.

Desde LAB seguimos trabajando para avanzar en la mejora de las condiciones laborales del personal de servicios del Departamento de Educación de la CAV y para hacer realidad el desarrollo efectivo del Convenio Colectivo